# LAKUNTZAKO EUSKARAREN TRASKRIPZIOA.

N- Ori! Or gaudenez, ortik asiko gaa.

A- Bai, orduben, esan dutena, pues festan bezpereti ola! Aide printzipalai argizeye eta erresponsue biyeldu, ta gio elizen, zea egunes, Sandu Guzien egunien meza izeten zen eta etzaldi-en, bueno, errespontsuek atatzen, sepultures sepulture; zeuga ti famili bakutzek bakizu sepulturet uitzen zuben, ta saten dizut zei, zei zeietan zei parentetan bai olako-zei osaba, goñeta (o lo que sea) arrenien ataa. Bestelako oni ata zen-beitt olako, aide guztien ataa, etten zien erresponsuek.

N- Eta ze yaten zien, yoten zen elize zabalik osue? egun or-tan, ezta? Egun osue zabalik!

A- Eta gio bisitek, pues ola etten zien, bisitek saten ziobu-en.Elizen sartu ta ataa. Sartu. Santisimuei errezatu zea bat, estaziyuat, (o lo que sea) eta ataa. Berris sartu ta ola pues goizie guzien, eta egun guzien ori etten zubien Domini Sandu egunien.

N- Eta, apeza yoten zen, an, egun osue? Debei? Ola?

A- Apezat o bi. Arbazukue tortzen zen bintzet launtzia. Uda Arbazu txikiyo da, ta Lakuntzen beti lan geyo, launtzen Arba-zukue. Bat aldiateti, bestie besteti, apezak bat goiko aldeti bestie bien, aitzen zien urrean urren erresponzuek ataa ta ataa atsaldie guzien kirieleison-kristeleison berriz erresponn-tsuek atatzen.

N- Bai, bai akordatzen neiz ni, elize zabalik yoten zela egun osuen bintzet.

A- Zabalik yoten zen egun osue, egun guzie.

N- Eta ori Domini Sandu egunien, eta io gaurko eguna bezala Anime egune ooo! da?

A- Animen egune, Animen egunien meza!

N- Meza!

A- Meza, besteik ez.

N- Ete nun, Lakuntzako elizen ooo! San Antonen debei obai bezela, o ez ?

A- Elizen!

N- Elizen erriyen ezta?

A- Elizen nik ezautut. San Antona beste egun betien, zogatibek San Anton egunien eta olakotan bai, beño Domini Sandu egunien ez! Elizen etten zien.

N- Elizen eta meza bakarra Anime egunien eta... Ya! Ya!

A- Bai meza.

N- Bai, bai.

A- Bueno meza, bi meza de...yoten zien, bat txikiye eta meza, ttiliñeko meza, eta bestiak zea... bi meza.

N- Ezkille aundiyeki jota?

A- Errepikie jota.

N- Errepikie jota. Bai, bai!

A- Bat ttiliñeko meza, ttiliñe jotzen zubien eta debei meza txikiye te gio beste meza. Ta beiten e... pues, izeten zen meza goizekue, goizeko seietan eta gio ttiliñeko meza.

N- Eta oi ze orduten izeten zen?

A- Meza nausiye eta zera biyerten.

N- Bestial.

A- Bai, zortziyek o zoertziterdiyek gareyortan.

N- Seiyek beño biandubo... bintzet! Ta eguerdiyen?

A- Ttiliñeko meza, goizien jeitsi bienak kantaz. (lo que sea) ori da ttiliñekue. Ori jeiten e...

N- Bai, bai jeiten. Ta jeiten gio meza nausiye eta gobien etzen yoten obai bezala?

A- Ez, obai bezala ez, mezak goizien!

N- Meza nausiye ta...

A- Gobekue guai. Zengati yoten zien, san dizuten bezala, yoten zien, meza goizekue, gio nausiye te gio bezperak. Sin falta juan bier anuz dee, bezperata dee.

N- Bai, bai, elizkizinun guzitee! Orduben juan bier.

A- Elizkizun guzite juaten zen.

N- Bai, bai. Gio aber, ortik nua. Gabonetaa o?

A- Gio Gabonetaa!

N- Bai, eztau beste festik, ez emen, ola?

A- Ez, ez beste festik alakorik eztau emen! Gauerdiko mezoi, oi betikue da. Oi, betikue eta gobien etten zien, zea... neskexek eta mutillek, kuadrillek, etten zien afayek, beño itxetan.

N- Itxetan!

A- Bakutzek beei...

N- Beño kuadrilletan.

A- Kuadrilletan!

N- (Osea), ez, fameliton guai bezala?

A- Ez, ez, ez.

N- Orduben kuadrilletan!

A- Guai, fameliyen bezala, orduben kuadrilletan juaten zien

ta... Alakon itzen o alakonien enbidu, etten zien afayek. Ta gio, pues, tabernan zauden gizonei giperrak eta, jartzen ziobien "Pitxera" potien zeatu, sube eta auntze piper gindille bota eta tabernetan ta sartzen zittubien kuadrillek.

N- Bromak!

A- Bromak! Eztulketan asten zien denak.

N- A! Piketu etten zuben? Subekin?

A- Piketu kuanto, klaro! Pipermiñe botata, piketu! Apajonak, eztul ta eztul. Gabonetakue besteik eztau, eztau geyo. Guai dee askos afan geyo dau.

N- Bai, ola itxetan ta... gio fameliye ta, Urtezar egunien, zerbette ola? o afaye debei?

A- Urtezar egunien mutillek eta afayek etten. Zittubien ibiltzen zien eee.

N- Mutillek bakarrik, neskatuek ez orduben?

A- Mutillek bakarrik, mutillek nausi. Orduben mutillek nausi bai. Gio ibiltzen zien itxes itxe gauerdiyen, Urteberri... ona kantatzen.

N- Ta zer...

A- "Urteberri egun on

Jaungoikua duzu lagun ona!"

Ta limosnan, ta jendiek, pues man.

N- Ta zer da ori, pazkuen amorezerbeitt ezkien ola?

A- Bai! Eskien eta leyua ataa eta zerbeitt botatzen zakiobien. Ta ez paziobien maten:

"Etxe ontako etxeko andria

Øabe zatarra dirudi!" Kantazen ziobien.

N- Ta orduben man bier!

A- Ta maten baziobuen:

"Etxe ontako etxeko andria
ama Birjiña dirudi!" Maten zubenai ta bestela labe zatarra. Bai, bai ala kantatzen zubien.

N- Oi, Urteberri egunien!

A- Oi, Urteberri egunien, bai. "Jaungoikue duk lagun ona". Oi kantatzen zubien. Beño mutillek bakarrik.

N- Mutillek, neskatuek itxen, formal, formal, txintxo-txintxo.

A- Neskatuek itxen! Neskatuek itxen! Guai bezala? Denetaa apuntetzen die neskatuek, mutillek eta neskatuek guai iguel iguela, orduben ez. Orduben mutillek, erroldan ibiltzeko, mutillek.

ARBIZUKO EUSKARA